

# Galtzaundi



**Eskualdea:** Ibiurko ur bizien proiektuaren egoeraz >>> Nekots, Tolosaldeko landa turismoaren elkargunea Aste Santuei begira **Kultura:** lurre elkarteko bertso paper lehiaketa >>> Oteiza Tolosan **Kirol saltsa:** Miguel Otegui formula 2000ko pilotuarekin solasean.

**ELKARRIZKETA:** Jon Magic Irurako mago gaztea

# korrika<sup>æk</sup>

Tutera-Gasteiz 189  
martxoaren 28tik apirilaren 5era.

# ongi etorri

euskaraz bizi  
nahi dugunon herrira

# 09/04/02



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**



**UNIBERTSITATEA BAZTERD PRESTI**

## ATE IREKIAK

*zaintza zure jabetzari*

---

**OSASUN-ERAKUNTZAKO**

**APILAK 25** - 11:00 lehenaldia **PLAZA MERINO**  
**ERAKUNTZA-OSASUN** TALDEA 9170-0473 [erakuntza@mundragon.eus](mailto:erakuntza@mundragon.eus)

**MARTXOAN 28** - 11:00 lehenaldia **OSASUN MERINO**  
**ERAKUNTZA** TALDEA 9170-0473 [erakuntza@mundragon.eus](mailto:erakuntza@mundragon.eus)

---

**ERAKUNTZA-ERAKUNTZAKO**

**APILAK 4** - 10:00-13:00 lehenaldia **PLAZA MERINO**  
**ERAKUNTZA** TALDEA 9170-0473 [erakuntza@mundragon.eus](mailto:erakuntza@mundragon.eus)

---

**APILAK 2** - 10:00 lehenaldia **PLAZA MERINO**  
**ERAKUNTZA** TALDEA 9170-0473 [erakuntza@mundragon.eus](mailto:erakuntza@mundragon.eus)

---

**ERAKUNTZA-ERAKUNTZAKO**

**APILAK 24** - 10:00 lehenaldia **PLAZA MERINO**  
**ERAKUNTZA** TALDEA 9170-0473 [erakuntza@mundragon.eus](mailto:erakuntza@mundragon.eus)



## Egin zaitez **Galtzaundiko** bazkide

Lizen-abisenak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Telefonoa(k): .....

**Urteko kuota:**

Lanean 38 euro  Langabetua, ikaslea edo jubilatua 21 euro

Kontu korrante zenbakia \_ \_ \_ / \_ \_ \_ / \_ \_ \_ / \_ \_ \_ \_ \_ Nafarroa etorbidea, 6-behea • 20400 Tolosa • Tel.: 943 655 004 • Faxa: 943 654 983





beteurreko  
preziazkoak  
**147€**  
gogoratu behar

# MULTIOPTICAS

**T.A. ZERBITZU OPTIKOETAN**

---

**100 MODELOTIK GORA**

1. Calle, Barrio 1  
Tel. 943 65 11 14  
**JARRAGON**

2. Arguedas 14  
Tel. 943 65 11 14  
**BERRATA**

3. Barrio 14, 2001  
Tel. 943 65 11 14  
**DOZONA**

4. Barrio 14, 2002  
Tel. 943 65 11 14  
**ELIZA**

5. Barrio 14, 2003  
Tel. 943 65 11 14  
**GARRAZA**

6. Barrio 14, 2004  
Tel. 943 65 11 14  
**ILUR**

7. Barrio 14, 2005  
Tel. 943 65 11 14  
**OSOLA**

**Lehendakaria  
Tel. 943 65 11 14  
**TOLSA****



**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefona:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Anrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banatzaileak:** Oihana Sanchez,  
Juankar Arregi.

**Idazkaria:** Edurne Mendia.

**Maketazioa:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Trutxuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balañain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana  
euskaraz


## IRITZIAREN LEIHOA

- Lierni Alkorta: Ongi? ongi etorri...
- Jone Otxoa-Aizpurua: 5 km

4-5. orrialdeak

## NORMALIZAZIO ATALA

- Zatoz euskaraeneara



6. orrialdea

## ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Ibiurko ur biziak: geldituta, baina ez ahaztuta
- Nekots, eskualdeko landa turismoaren elkargunea

11-13 orrialdeak

# Galtzaundi 298

2009ko martxoaren 20a

Iritziaren leihoa: Lierni Alkorta eta Jone Otxoa-Aizpurua .....	4-5
Eskualdeko albisteak:	
Ibiurko ur biziaren proiektuaren egoera ezagutuz .....	11
Tolosaldeko landa turismoa, Aste Santuei begira .....	12-13
Kultura:	
Iurre Elkarteko I. Bertso Paper Lehiaketa .....	18
Oteiza Tolosan zikloa .....	19-20
Kirol saltsa:	
Miguel Otegui, Formula 2000 pilotuarekin solasean .....	22-23



## ERREPORTAIA

Beraiek ere euskaraz bizi nahi dute

7-10. orrialdeak



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutako argitalpena

14-18. orrialdea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



## ONGI? ONGI ETORRI...

### LIERNI ALKORTA

Tolosaldeko Korrikako arduraduna

**O**rain hilabete batzuk ongi? galdera egiten zieten kalean joan-etorrian zihoazenei Euskal Herri osoko herrietako hormetan itsatsirik agertu ziren kartelek. Ongi?. 'Bai, ongi' erantzungo luke bateren batek. 'Betikiko martxan' besteren batek. 'Zer baina, ongi?' galderarekin

goa izango baitu euskarak, oso ongira igaro eta bikainera iristeko bidean. Halakoa behar bailuke izan euskararen egoerak: bikaina.

Ulertu al duzue zerbait? Bartzuek honezkero antzemango zenioten nire jardunaren nondik norakoari. Beste batzuk, aldiz, zutabe honen hasieran bai-

Eta zuk, zuk ere, euskaraz bizi nahi al duzu? Eta zuk, zuk ere, euskaraz biziko den herriaren alde urratsak ematen jarraitu nahi al duzu? Bide horretan urrats bat gehiago emateko parada eskaintzen dizu, beraz irakurle, aurtengo Korrikak. Hartu beraz lekukoa, ekin gogor euskararen bikain horre-

*"Eta zuk, zuk ere, euskaraz bizi nahi al duzu? Eta zuk, zuk ere, euskaraz biziko den herriaren alde urratsak ematen jarraitu nahi al duzu? Bide horretan urrats bat gehiago emateko parada eskaintzen dizu, beraz irakurle, aurtengo Korrikak. Hartu beraz lekukoa, ekin gogor euskararen bikain horretara heldu ahal izateko lanari eta jarraitu ongi etorria ematen, euskaraz bizi nahi dugunon unibertsoan murgiltzeko asmoa dutenei".*



erantzungo luke hausnarketan harago joan nahi lukeenak.

Urte amaierako ongi? erakargarri eta zalantzarik hura, ongi etorri bilakatu da orain, ordea. Euskararen egoerari buruzko galderei 'ongi' batekin erantzun ahal izateko bidean sorturiko 'ongietorria' da. Zentbat eta ongi etorri gehiago eman, orduan eta ongi sendoa-

no galduago ibiliko zarete orain. Eta zer deritozue, 'ongi' eta 'ongi etorri' hitzen arteko festa honetan Korrika hitza txertatzen badugu? Errazago orain, ezta?

Izan ere, horixe du aurtengo ospatuko den Korrikaren 16. edizioak lelo nagusizat: Ongi etorri. Ongi etorri, euskaraz bizi nahi dugunon herrira.

tara heldu ahal izateko lanari eta jarraitu ongi etorria ematen, euskaraz bizi nahi dugunon unibertsoan murgiltzeko asmoa dutenei. Hartu lekukoa eta jarraitu, hitzen bidez, hizkuntzaren bidez, euskaraz bizi nahi dugunon herri hau eraikitzen.

Egunerokoa da hitzordua, egunerokoa behar du

izan euskararen jardunak. Baina, eguneroko jardunak festa moduan gailurra eza-gutu dezan, martxoaren 26tik apirilaren 5era bitartean, Tuteratik Gasteizera egingen du korrika euskarak. Gure eskualdean, berriaz, apirilaren 2aren goizeguerdetik partean egingo diogu ongi etorria Korrikari. Hitzordua jarrita dago, honenbestez.

Eta gogoan izan, ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira. ■



# kutxa

## SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874  
943 653 985 943 806 020  
Santa Luzia, 1 TOLOSA





5 KM

## JONE OTXOA-AIZPURUA

Abeslaria

**G**oizeko 10:30. Urduritasuna gorpuztean, kirioak dantzatan eta nire atzarretako azkazalak... zer esan... tamalez, kaltetuak atera ziren oso. Zergatik? Ez dakit. Beno, jakin badakit, baina ez da erraza egoera horren zergatia azaltzen. Azaltzea baino, ulertzea. 5km. Ez du misteriorik; ez besterik.

1300 lagun, emakumeak denak, 11:00ak puntu-puntu aterata ginen Donostiako Alderdi Ederretik. Lehen 100 metroak nahasiak izan ziren oso; korapilatsuak. Aurrekoari oinetakoa ateratzearen beldur, atzekoak aterako ote zizun kezkarakin, lurrera begira egin genituen lehen pausoak. Bultzadaren bat edo beste, bata saihestu, besteak aurre hartu, kasualitatez baten bat aurreratu... Hala ere, berehala lasaitu zen egoera eta bakoitza bere erritmoan, ilara luzea osatu zen Donostiako karriketan.

Tipi-tapa, tipi-tapa eutsi egin behar zitzaion erritmoari. Kale artean aurrera, jendearen txalo-

ek lagunduta pauso guztiak egin genituen aurrerantz. Nekearen zama antzematen hasita ere barne borroka horretan aurrera jarraitzea baino beste aukerarik ez zegoen. Tipi-tapa tipi-tapa, pixkanaka eta gelditu barik. Aurrerantz lehenik, bidegurutzetan ezkerretara hartu, berriro aurrera... ez zegoen galtzeko arriskurik; aurretik zihozenei jarraitzea besterik ez; nahiko lan hala ere.

Zurriola amaierako errotondara iritsi eta bertan buelta hartuko genuelakoan, ibilbideak al-dapan gora jarraitzen zuela argi geratu zen. Susto eta desiluzio galanta! Baina aldapan behera hasita, berunezko oinetakoa erantzita bezala, indarrak berritu eta azken txanpa besterik ez zen geratzen.

Urrunetik ikusten zen helmuga eta honek eztabaida piztu zuen. Begi biak ados zeuden, eta gertu ikusten zuten amaiera; oinek, ordea, urrun zegoela zioten. Burua isilik. Ezetz eta baietz, bat ez zen nahi ordurako iristen. Guztiaren gainetik, ailegatu gi-

nen helmugara. Azken metroetan, azken esfortzua, aurpegiko muskuluek egin behar izan zuten. Irribarrea ahoan, pozik zeharkatu genuen 5000.metroa.

Martxoaren 8ko bizipenak dira aipatutakoak. Aurreko hiru urtetan gitarra lagun, taula gainean aritu izan naiz kantuan; aurtengoan, berriz, lasterka Lita-oian.

Bai, arrazoi duzu, egia da, igaro dira egun batzuk martxoaren 8.etik. Baina gaur ere, emakume izaten esnatu naiz; egunero legez. Emakumeen nazioarteko eguna ospatu genuen martxoaren 8an. Berdintasunaren bidean borroka egin beharreko eguna atzokoa; eta biharkoa. Baita gaurkoa ere.

Tamalez bide honek ez ditu 5km. Ezta 42 ere; maratoia baino luzeagoa izango delakoan nago. Bide horretan nahaste korapilatsuak egongo dira, kezkek sortuko dira, erritmoari eutsi beharko zaio, zenbaitetan nekearen zama ere astun bilakatu da, bidegurutzetan era-

*“Bai, arrazoi duzu, egia da, igaro dira egun batzuk martxoaren 8.etik. Baina gaur ere, emakume izaten esnatu naiz; egunero legez. Emakumeen nazioarteko eguna ospatu genuen martxoaren 8an. Berdintasunaren bidean borroka egin beharreko eguna atzokoa; eta biharkoa. Baita gaurkoa ere.”*

bakiak hartu, ezusteko gogorrrak jasan, hauetatik indarberrituta irten, eztabaidak... Bide horrek hori eta gehiagorako tartea emango du. Baina ez ahaztu, tipi-tapa pausoak beti aurrerantz. Horrek, ezinbestez, iruditu ala ez, helmugatik gero eta gertuago jarriko gaitu. 5000.metrotik gertuago. Nazioartean emakumeen egunaren beharrik izango ez den egunetik gertuago jarriko gaitu. ■



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

# Anelxo

LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.

Loratégl lanabesak.

Lora legor eta apalndura tresnak.



Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea

Tel.: 943 651 189 - 943 653 462

Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

# IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar gaitan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

# ibarra

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60

# Tolosa Bit

informazioa softwareak

Informazioa eta softwareak  
Enpresa eta pertsonen lortu  
komunikazioa

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

# Zatoz Euskaraeneara!

DANTZA, IKUSKIZUNAK, KANTUA... TOLOSAN, GUZTIAZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DA

Erredakzio Batzardea

## EGITARRUA

Martxoak 24 eta 25, aste-arte eta asteazkena, Dar-dar produkzioak-ek, "Eta zer?" antzerki emanaldia eskainiko die Tolosako 6-16 urteko ikasleei. Antzerki honek desberdin izateko dugun eskubidea aldarrikatzen du. "Ni erremerre naiz, eta zer?", "Niri futbola ez zait gustatzen, eta zer?", "Ni potoloa naiz, eta zer?", "Nire aita etxeoandrea da, eta zer?" liburuetan oinarritutako antzerkia da. Goizeko 9etan eta 11etan izango dira saioak bi egunetan.

Martxoak 26, osteguna, 09:45ean, Leidorren "Artikoko ipuina" filma emango du Tinko Euskara Elkarteak, eskola orduetan, gatzetxoentzat.

Martxoak 28, larunbata, 12etan, Tontokaletik abiatuta Tolosa Kantari izango da Tolosako kaleetan zehar. 22:00etan berriz, Bertso Jazza izango da Leidor antzokian. Donostiako Jazzaldian egindako saio arrakastatsua- ren antzekoa hileroko eskaini nahi dute eta Bertsozale Elkar- teak Tolosari eman dio bigar- ren saioa eskaintzeko auke- ra. Hauek dira parte hartuko duten bertsolariak: Andoni

**Martxoaren 24tik apirilaren 4ra, Tolosan ospatuko den, lehen euskararen astea izango da Euskaraenea. Egun hauetan zehar ekimen desberdin ugari izango dira Tolosan eta guztiok zaudete gonbidatuta!**

Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maia. Gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu izango dute. Musika- riak, Bixente Martinez, Haritz Oleaga, Asier Ituarte, Jon Piris eta Julen Izarra izango dira. Lan honetan, inprobisazioa- ren bi atal garrantzitsu elka- rrekin arituko dira.

Martxoak 30, astelehena, Aitzol Udal Euskaltegian, 10:00etan, Xabi Paya ber-

tsolariaren "Euskaldun erdal- dunaren metamorfosia" ize- neko hitzaldia izango da.

Apirilak 2, osteguna, 11:30ak aldera KORRIKA iritsiko da Tolosara. Behin Korrikak Tolosa utzita, moka- dutxo bat jateko aukera ere egongo da, 12:30, Triangulo plazan.

Apirilak 3, ostirala, 20:30ean, Benito Lertxun- diren emanaldia izango da

Leidorren.

Apirilak 4, larunbata, Uda- berri Dantzari Taldeak urte- ro antolatzen duen Dantzari Txiki Eguna ospatuko du. Euskal Herriko zazpi herrial- deetako dantzari taldeak eka- rri nahi ditu Udaberrik. Dan- tzariak kalez kale ibiltzen dira dantzan eguerdi partean eta arratsaldean Plaza Berrian emanaldia izaten dute. Horren ondoren helduen txanda dator eta iluntzeko 8etan Plaza Zaharretik irtengo dira kalez kale dantzan aritzeko, ondo- ren dantzan eta kantuan jarraitzeko, Zerkausin afaria izango da, afalondoren Oxa- bi taldea lagun izango dute- larik. Afarirako txartelak, Ika- tza, Orbela eta Raku taber- natan eskuratu ahal izango dira.

## ANTOLATZAILEAK

Aitzol Udal Euskaltegia, Bertsozale Elkarteak, Gal- tzaundi Euskara Taldea, Hiru- kide ikastetxea, Inmakulada Ikastetxea, Korrika Batzor- dea, Laskorain Ikastola, Lizar- di Kultur Elkarteak, Orixe Ins- titutua, Samaniego Herri Eskola, Tolosa Kantari, Uda- berri Dantzari Taldea eta Tolosako Udaleko Euskara eta Kultura Batzardeak. ■



**ALDATZ**  
**Kristaldegia**

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispilluak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

**BENTA**  
**ALDEA**

JATETXEA

Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO**  
**ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA



# Beraiek ere euskaraz bizi nahi dute

JULIA DE JESUS ETA MIGUEL ARRIVAS-EN HELBURUA EUSKARAZ BIZI AHAL IZATEA DA. MIGUEL IGARTUAK, LORTU DU DAGOENKO.

Leire Zubeldia

**D**ominikar Errepublikako da Julia de Jesus. Santo Domingo hiriburutik oso gertu dagoen San Cristobal herrixkan jaio zen, nahiz eta bere gaztaroa aipatutako hirian eman duen. 1998. urtean etorri zen Euskal Herrira. Geroztik, Ibarra bizi da, bere senarra eta hiru seme-alabekin. “Nire senarra tolosarra da, eta euskal hiztuna. Berak familia zuen Dominikar Errepublikan, eta senitartekoen bidez ezagutu ginen. Aitor eta Julisa Caribeko uhartean jaio ziren. Mai-

**Martxoaren 26an abiatuko den 16. Korrikak ongietorria eman nahi die euskaraz bizi nahi dugunon herrira datozenei. Euskarari egin dioten ekarpena eskertu, eta eredugarriak izan daitezten omendu nahi dira aurtengo aldian, Euskal Herrira heldu, euskara ikasi, eta euren seme-alabei euskara transmititu dieten familiak. Tolosaldean ere badaude euskaraz bizi nahi dugunon herriaren parte izan nahi dutenak. Julia de Jesus eta Miguel Arrivas gazteak esaterako. Miguel Igartua berriz euskaraz bizi da dagoeneko, euskara galdu eta ostera berreskuratu ondoren. Beraiei ere, ongietorria eman nahi izan die Galtzaundik, eta bide batez, euren esperientzia ezagutu eta zabaldu nahi izan du, eredu izan daitezten.**

ra-k berriz lau urte ditu”. Eskualderaritsi eta hamabost egun baino lehenago eman zuen izena AEK-n.

Miguel Arrivas madrildarra da. Hiriburuko Prosperidad auzoan (edo berak dioen moduan, “la prospen”) jaio

eta hazi zen. Juliak baino denbora dexente gutxiago darabara gure herrian. Bi urte besterik ez. “Nire lagun bat hemen bizi da, eta berarekin egon ahal izateko etorri nintzen”. Lan kontuek ere bultzatu zuten Miguel hona etortzeko erabakia hartzera. “Nekazaritzan egiten dut lan. Zaila da irudikatzea, baina Madrilen oraindik geratzen dira baratzak. Hemen ordea aukera gehiago daude nekazari moduan lan egiteko”. Beizamako Aménabar baserrian bizi da bere lagunarekin. Uztaro kooperatiba osatu zuten, eta bezero finkoek baratzeko eta baserriko pro-

(hurrengo orrian jarraitzen du)



Julia de Jesus-ek Maira, bere lau urteko alabatxoarekin hitz egiten du euskaraz.

duktuez osatutako saskiak saltzen dizkiete. “Autogestioa eta ekologia uztartzen dituen proiektu kolektibo bat da”, azaldu du berak. Joan den irailan hasi zen Aitzol Udal Euskaltegian.

## ZERGATIK EUSKARA IKASI?

Bai Juliaren eta bai Miguelen ama hizkuntza gaztelera da.

Espanolez aise moldatu daitezkeela jakinik, zertarako horrenbeste neke euskara ikasteko? Hori izango da ziurrenik, gurera datozenen artean, askok egiten duten planteamendua. Bi elkarrizketatuek ordea, argi zuten euskara ikasi nahi zutela. “Umeekin euskaraz hitz egiteko eman nuen izena euskaltegian. Lanean ere, euskararen lehenengo pro-

fila eskatzen zidaten, eta alde horretatik ere ondo etorri zait euskaltegian ikasitakoa. Baina lana ez zen euskara ikasteko arrazoia izan”, argi utzi nahi izan du Juliak. Egun, Donostia Ospitaleko administrazioan egiten du lan. Miguelen kasuan, Beizaman bizitzea erabakigarria izan zen. “Beizamako hizkuntza euskara da. Soilik euskaraz hitz egiten da. Gai-

nera, nekazaritza mundua oso euskalduna da”. Beharrak erakutsi dio Migueli euskaraz. Halabeharrak alde batera utzita ordea, gustatu egiten zitzaio-lako hasi zen ekinean.

Biek berretsi dute euskaldun berriek esaten dutena: “Euskara oso hizkuntza zaila da ikasteko”. Julia seigarren urratsen dago. AEKn urte batzuk euskara ikasten eman ondoren, Ikastolan hasi zen euskara klaseak jasotzen. Hasieran astean bitan joaten zen eskolera, eta gerora, hiru urtez egunero hartzen zituen klaseak. “Horrela ibili nintzen, lanarengatik euskarazko eskolak utzi behar izan nituen arte. Horrenbeste ahalegin egin ondoren, ez nuen ikasitakoa galdu nahi, eta irakasle partikular bat hartu nuen, etxean euskara ikasten jarraitzeko”. Iaz eman zuen izena Aitzol Udal Euskaltegian.

Askotan gogorra egin zaio Juliari euskara ikasteko borroka. “Alde batetik lana, gero etxea, familia... Leher eginda joaten nintzen eskolera. Gainera mantso hobetzen duzu, eta batzuetan ez duzula ezer aurreratzen iruditzen zaizu”. Juliaren iritziz, euskara ikasteko metodorik ez dago eta horregatik egiten da hain zaila. “Hala ere, inoiz ez dut euskara alde batera uzteko tentaziorik eduki”, azpimarratu du.

Migueli idaztea kostatzen zaio gehien eta esaldien osaketa. Bera hitz egiten entzutean ordea, zaila egiten da Euskal Herrian bi urte daramatza sinestea. “Nik Beizaman ikasi dut euskaraz. Entzunez ikasi dut gehien bat”. Ez batak ez besteak ez dute lotsarik sentitzen euskaraz hitz egin eta hanka sartzeren bat eginenez gero. “Nik uste dut jendeak eskertu egiten duela egiten dudana ahalegina”. Lotsa ez, baina pereza eragiten dio askotan euskaraz hitz egin beharrak. Pixkanaka hobetzen



Miguel Arrivas madrildarrak bi urte eskas daramatza Euskal Herrian. Beizaman, beharrak erakutsi dio euskaraz.



noa, gero eta ziurtasun handiagoa dut, baina oraindik ere, euskaraz aritzeak esfortzua suposatzen du niretzat”, dio madrildarrak.

## EUSKARAZ MOLDATZEAREN SATISFAKZIOA

“Ospitaleko harreran nagoenean, jendea gazteleraz hasten zait hizketan. Nik ordea euskaraz erantzuten diet, eta harriturik geratzen dira”, kontatu du Juliak harro. Izan ere, emakume gaztea harro sentitzen da euskaraz moldatzeko gai delako. Miguel ere asebeste egiten du lehen euskaraz egin ezin zituen gauzak, orain, egiteko gai delako. “Hemen go jendearekin euskaraz hitz egin ahal izateak, eta eurek diotena ulertzeak ere izugarri betetzen nau”, jarraitu du Juliak. Biei, euren bizileku berrian integratzeko bidea eman die euskarak.

## EUSKARAZ BIZITZEA HELBURU

Maira, lau urteko neskatxa txikiak asko laguntzen dio amari euskaraz hitz egiteko garaian urrats berriak ematen. Euskara ederrean aritzen dira biak solasean. “Julisa eta Aitorrekin ordea gazteleraz hitz egiten dut”, zail egiten baitzaio seme-alaba zaharrenekin gazteleraz hitz egiteko ohitura apurtzea. Ipuinak ere irakurtzen dizkio Mairari. “Pentsatu ordea gazteleraz pentsatzen dut, eta haserretzen naizenean ere erdarara jotzen dut nahi gabe”, kontatu du barrez.

Beizamako ostatuan, kalean, edo bezeroekin tratuan ari

# Euskara galdua berreskuratu duen gizon baten testigantza

Elgoibarren jaio zen Miguel Igartua. Lau alaba eta bi seme izan zituzten bere gurasoek. Euskal giroan hazi ziren denak. Etxean euskaraz egiten zuten erabat. “Euskara ama hizkuntza zen guretzat, besterik ez baikenekien”. Eskolan hasi zenean, maisua Miguelen etxera joan zen etxean gazteleraz egin ziezaiten eskatzera. “Nik gaztelera ulertzen nuen, baina ez nuen hitz egiteko gaitasunik. Etxean guztioi kostatu zitzaigun gazteleraz hitz egiten hastea, baina hala ere, gazteleraz mintzatzen hasi ginen”. Euskaragaltzen ari zela konturatuta omen zegoen. Zorionez, ez zuen hitzuntza erabat galdu. “Gure

etxean kantuan aritzeko ohitura handia genuen. Euskal kanterek euskara mantentzen lagundu ziguten. Baina adierazteko gaitasuna eta gramatika ia guztiz galdu nituen”.

Elgoibarretik Ikaztegiatar etorri zen Miguel. Neskalagunaren baserrian euskaraz hitz egiten zuten, eta elgoibartarrak tutik ere ez zuen ulertzen. “Ego-

erarengatik hasi nintzen ostera euskara ikasten. Gero ordea, seme-alabak izangentuen, e t a



denean, uneoro du euskara ahoan madrildar gazteak. “Etxean aldiz gazteleraz hitz egiten dugu. Lagunari izugarri gustatuko litzaioke euskaraz hitz egitea, baina horrek 24 orduak ahalegin batean ematea eskatuko lidake”. Hori da ordea Miguelen helburua: etxean ere euskaraz aritzea, irratia euskaraz entzutea, egunkaria euskaraz irakurtzea.... “Hori dena lortze dudana egunean, pauso handia eman dudala esan nahiko du”. Juliak ere euskaraz

egin nahi luke bere bizia. Hori lortzeko bidean, euskaltegira joaten jarraituko duela dio, nahiz eta batzuetan gogorra egingo zaion. “Euskara ulertu eta hitz egin ahal izateko ahalegin handia egin behar izan dut. Horregatik izugarri maite dut euskara”, esan du. Miguel ere ados agertu da Juliaren baieztapenarekin. “Niretzat, euskara, nire herriko hizkuntza da, oso hizkuntza polita gainera, beharrezkoa, eta kultur ondare oso garrantzitsua”, gehitu du.

hauekin euskaraz egiten hasi ginen. Euskal giroa berreskuratu, sortu, nahi nuen etxean”. Miguelek bazuen haurtzaroko oinarri bat, baina berak dioen moduan, “Elgoibarreko euskara eta Ikaztegiatarak oso ezberdinak dira”. Horregatik zaila egin zitzaioela gogoratzen du. “Hasiera batean dena alderantziz ulertzen nuen. Pentsa, txekorra txerria zela uste nuen”. Euskaltegira ere joan zen, baina berak zuen mailarako eskolarik ez zegoela esan zioten.

Gaur euskaraz bizi da Miguel. “Etxean euskaraz egiten dugu erabat. Hitz teknikoak erabili behar ditudanean, edo gai serio bati buruz hitz egitean ordea, gaztelera jotzen dut”. Euskaltegian ikasi ez izanaren ondorioa dela dio.

Martxoaren 26an Tuteratik abiatuko dena, Miguelen lehenengo Korrika izango da. Lanak uzten badio, bertan parte hartzen saiatuko da. Juliak izan du Korrika ezagutzeko aukerarik, urte batean bere seme-alabek eraman zuten lekukoa Ikastolako ordezkari bezala. Lanak galezarazi egingo dio aurten lekukoaren atzetik korri egitea. Biek ere, euskararen aldeko eguneroko lasterketan jarraituko dute, helmugara iritsi arte. ■

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**SANTAMARIA**

*Ortopedia*

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

**SHANTI**


**kirolak**

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

# 34 kilometroko ibilbidea euskararen alde

Apirilaren 2an, goizeko 10:41ean sartuko da Korrika 16 eskualdean

Ikaztegiatiko Eredu enpresan hartuko du Tolosaldeak Korrikaren lekukoa. Alegia, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Aduna, eta Andoain igaro ondoren, Gasteizerako bidean jarraituk du euskararen aldeko lasterketak.



**TOLOSA >>>** PROIEKTUAK ESKUALDEARI ETA ARRAUNARI ONURA HANDIA EKARRIKO LIKELA USTE DUTE TAKEN

## Ibiurko ur biziak: geldituta, baina ez ahaztuta

*Ibiurko urtegiko lanak martxan jarri zirenean ikusi zuen argia Ibiurko ur biziaren proiektuak: aspaldion, ordea, ez da proiektu haren oihartzun handirik entzuten. Tolosako Udalera eta TAKera (Tolosaldeko Arraun Kluba) jo dugu kontua zertan den jakiteko, eta batak zein besteak esandakoaren ondoren, ondorio garbi bat atera dugu: proiektua ez dago ahaztuta, baina une honetan geldirik dago.*

Amaitu Galkoetxea O.

**2**006an, Ibiurko urtegiko lanak hastekotan zirela, Baliarraingo, Orendaingo eta Ikaztegietakako alkateek ingurune hura leku bizi bihurtzeko asmoa agertu zuten, urtegi batek sortzez duen funtziora mugatu beharrean, urarekin loturiko hainbat jarduera aurrera eramanez. Horretarako, jarduera horiek garatzen dituzten kirol klubekin jarri ziren harremanetan, tartean TAKEkin (Tolosaldeko Arraun Kluba), eta honek urtegiaren arrauna, piraguismoa... praktikatzeko aukera jarri zuen mahai gainean. "Urtegiak ia 1500 metroko luzera zuzena hartzen du, eta hori tostako arrauna egiteko nahikoa da. Aulki mugikorren arrauna ere praktika liteke bertan, baina tostakoarekin gertatzen denaren aurka, kasu honetarako urtegiaren neurriak ez dira egokiak", azaldu digute TAKEtik.

Testuinguru honetan, praktika horretarako Legution zeuden instalazioak itxiko zituztela jakin zen, eta behin horiek itxita Euskal Herria aulki mugikorraren arrauna egiteko tokirik gabe geratuko zen; entrenamenduak burutzeko Suston edo Sevillara joan beharreak aurkitu ziren hemengo taldeak. Egoera berri horren aurrean, TAKEk bigarren txosten bat aurkeztu zuen; txosten honen arabera, Ibiurren lur mugimendu batzuk eginez gero, urtegiak 2000 metroko luzera hartuko zukeen, hau da,



Eremu Olinpiko izatera pasa zitekeen. Honek, Euskal Herriko taldeek euren entrenamenduak Ibiurren egitea ahalbidetuko zukeen, baita bertan zenbait txapelketa antolatzea ere. "Pentsa honek zenbat jende erakarriko lukeen eskualdera, zer nolako onurak ekarriko lizkiokkeen kirol turismoari!", diote TAKEtik. Aipaturiko txosten hau Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako Federazioetan aurkeztu zuen TAKEk, baita zenbait administrazioetan ere, baina ez zuten inongo erantzunik jaso; beraz, Eremu



Olinpikoaren asmoa horretan gelditu zen.

### ONURA HANDIAK ESKUALDEARENTZAT

Hala ere, TAKEtik diote eurentzat nahikoa litzatekeela urtegiak duen eremua. "Orain arte, Oria ibaian burutu ditugu entrenamendu eta bestelako ekintzak. Tingladu azpiko instalazioak utzi gabe, Ibiurko urtegiak aukera berriak irekitzen dizkio klubari. Bertan, tostako arraunean jarraitzeaz gain, beste arraun mota batzuk ere praktikatu lirateke, aulki mugikorrena barne, eta

baita zenbait txapelketa antolatuko ere".

Proiektu honen guztiaren helburua eskualdean arrauna berpiztea da. Andoaindik hasi eta Beasainera bitarteko herriak hartuko lituzke, bertako eskolei, klubari, kirolariei eta orokorrean herritar guztiari kirol eremu berri bat aurkeztuz, eta urtegi inguruak zenbait kirol egiteko leku aproposa direla erakutsiz. Bestalde, proiektu honen gauzatzeak era askotako onurak ekarriko lituzke: kirol turismoa sustapertzea, asteburuko egonaldien gorakada, eskolarteko txapelketa berriak, ikastaroak... ■

**TOLOSALDEA >>>** ESKUALDEKO NEKAZALTURISMO ETA LANDA-ETXEETAN KRISIA NABARITZEN DELA DIOTE

# Nekots, eskualdeko landa turismoa

*Hilabete honetako zubian gerturatuko dira turistak eskualdera. Lau egun hauek igaro ondoren, Tolosaldeko nekazalturismo eta landa-etxeak Aste Santuei begira jarriko dira. Krisiak landa turismoan ere eragina izan du nonbait. Tolosaldeko nekazalturismo eta landa-etxeen elkartean, Nekots-en ez daude lo, eta lanean ari dira turistak eskualdera erakartzeko. Javier Amondarain, Nekots-eko lehendakariaren ahotik ezagutu dugu elkartea eta sektoreak Tolosaldean bizi duen egoera.*

Leire Zubeldia

## Zenbat nekazalturismo eta landa-etxe zaudete Nekots elkartean?

Guztira 17 gaude. Nekots, duela 15 urte sortu zen. Gehienak sorreratik gaude elkartean. Korteta izango da berrienetako bat, duela pare bat urte zabaldu zutela uste dut. Gainontzean denak 12 urtetik gorakoak gara.

## Itxierarik izan da?

Bai, azkeneko urte hauetan pare batek utzi dute. Baina nire ustez, orekari eusten diogu. Lehenengo nekazalturismoak zabal-

du zirenetik 20 urte inguru izango dira. Lehenengo bost urte horietan boom moduko bat gertatu zen eta ordukoak gara gehienak.

## Eskualdeko nekazalturismo eta landa-etxe guztiak daude Nekots-en?

Tolosaldea Garatzen eta Tolomendik bultzatuta sortu zen elkartea. Orduko hartan, eskualdeko nekazalturismo eta landa-etxe guztiak geunden bilduta. Gero, etenalditxo bat gertatu zen gure jardunean. Baina une honetan, nekazalturismo berriekin harremanetan hasi gara, Nekots ezagutzera emateko helburuarekin. Etapa berri honetan, pare bat urte daramatzagu. Diren guztiak ez daude elkartean, baina hori ez da gure helburua.

## Elkartearen ibilideari erreparatuta, zer nolako balorazioa egiten duzue?

Balorazioa gazi-gozoa da. Elkarlanean hasi ginen bakarka aritzeak baino ondorio hobekak emango zituelakoan. Gero, aldi bat egon zen, ez atzera eta ez aurrera, ezer egin ez genuena. Orain, berriro suspertu egin gara. Horregatik diot gazi-gozoa dela, etenaldi horretan, ezbaikenuen ekimenik aurrera atera.

## Tolosaldera etortzen den gehien-goak nekazalturismoa aukeratzen du?

Nikez ditut estatistika datuak. Pentsatzen dut, Tolosan dagoen hotelera, edo Lasarten dauden guztietara ere joko duela jendeak. Bi bezero mota daude: turismo egitera datorrena, eta lan munduko arrazoiengatik mugitzen dena. Nekazalturismoak ez gara iritsi azken bezero mota honetara. Esparru hau hotelak betetzen du oraindik. Turismo egitera etotzen dena, agian bai, nekazalturismora etortzen da. Inpresio hori daukagu.

## Eskualde honek landa eremu handia du, baina nekazaritza eta abeltzaintza ez dira garai batean bezain errentagarriak.. Nekazalturismoa baserriaren osagarria izan daiteke?

Hasierako iritzia hori zen. Gerora, landa-etxeak ere sortu ziren, eta horrek esan nahi du, pixkanaka beste bide bat jorratzen hasi dela. Tolosaldean ez dago inor nekazalturismotik bizi denik, baina osagarria baino gehiago bada kasu askotan. Baserri askotan ganadua izateari utzi egin diote, nekazalturismoa jarri, eta kanpoan lana eginez. Laburtuz, batzuk baserria nekazalturismoarekin osatzen jarraitzen

dute, eta beste batzuk baserriaren ordeko modura zabaldu dute nekazalturismoa.

## Hala ere, nekazal turismo askok, baserria baino gehiago hotelen antza handiagoa dute. Hasierako xarma hori galtzen ari da?

Egia da aldatu egin dela. Baina aldatu bada, merkatua aldatu delako izan da. Norberak bere merkatua bilatu behar izan du. Baserriak badu lekua, baina norberak landu egin behar du esparru hori. Bestelako ostalaritzaren inguruan apustua egin duenak, horrek ere bilatu egin behar du bere merkatua. Badira beste batzuk langileei ostalua ematen espezializatu direnak.

## Zer eskaini behar du nekazal turismo batek?

Nire ustez, nekazalturismo batek nekazaritzari lotutako esparruari eutsi beharko lioke, eta landa-etxeek bete dezakete merkatuaren beste eskaria. Hala ere, nekazaritzatik gero eta urrunago gaude. Nekazalturismo eta landa-etxeak, landa eremuan dauden etxeak dira. Gutxienez, naturarekin duen harreman hori eutsi behar dio, bestela bai galduko litzatekeela aipatu dugun xarma hori. Garrantzitsuena bakoitzak bere lekuari eutsi eta kopurua ez jaitea da.

## Eskualdeko turismo erakundeekin zer nolako harremana duzue?

Harremana ona da. Bigarren etapa honetan hasiak gara lanean, Tolosaldea Tour, Tolomendi eta Tolosako Udalarekin berarekin. Guk zer nahi dugun pentsatu, ideiak landu eta beraiek laguntzeko prest agertu dira. Pasa den neguan ekintza bat egin genuen Tolosaldea Tour-ekin. Zerbait berria egin nahian, bi gau pasatzen zituenari, Usabal kirol-





# ren elkargunea

degian spa zirkuitua dohainik egitea eskaintzen zitzaien. Harrera ona izan zuen, eta gustura gelditu ginen denok. Orain ere promozioaren alorrean badugu zerbait egiteko asmoa. Lanean ari gara dagoeneko. Eskualdeko nekazalturismo eta landa-etxeen izenekin txarteltxoak atera ditugu, taberna, sagardotegi eta jatetxeetan uzteko. Orain, Tolosaldea Tour, sagardotegiekin akordioaren batera iristeko lanean ari dela badakit. Azken finean, bakoitza bere aldetik ibili beharrean, eskaintza ezberdinen arteko lotura bilatzeko saiakera da Tolosaldea Tour egiten ari dena, eta gu, hor parte hartzeko prest gaude.

## Babarrunaren astea, txuletaren festa, bildotsarena... Horrelako festetan nabaritzen al duzue mugimendua zuten nekazal turismoetan?

Txuletaren festa abenduko zubian izaten denez, eta horrelakoetan erreserbak aurrez egiten direnez, festa honek ez digu etekinik ematen. Eta bestela, antolatzen den gutzian jendea

ibiltzen da, eta eskaria sortu egiten da, noski. Agian festa hauen antolatzaileekin harremanetan jarri, eta jai hauei etekin gehiago atera beharko genieke.

## Martxoko zubirako eta Aste Santuetarako jende asko espero al duzue?


Normalean zubietan eta opor egunetan bete egiten dira gelak. Aurreikuspenak, erreserbak zerbateko aurrerapenarekin egiten diren ikusita kalkulatzen ditugu. Aurrerapen handiarekin egiten badira, eskari handia dagoen seinale da, eta alderantziz. Baina bai, normalean bete egiten da.

## Krisia narabitzen al da?

Bai, nabaritzen da zein egoeratan gauden. Etxe batzuk, egoera zein den kontutan hartuta, eta urtea gogorra izango dela aurreikusita, iazko prezioak mantendu dituzte. Dena den, tarifak libreak izaten dira, bakoitzak bere prezioak jartzen ditu.

## Nondik etortzen da bisitari gehien?

Bigarai ezberdin daude. Opo-



rraldietan kanpotik etortzen da jendea. Kataluniakoak dira fidelenak. Asteburuetan berriz bertako jendea hurbiltzen da, Bilbo ingurukoa batez ere. Batzuk, euren asteburuko egitasmorekin etortzen dira. Beste batzuk, zerbait erakutsiko diegun esperantzaz etortzen dira. Beraz, guk ere turismo bulego txiki baten lana egin behar izaten dugu. Tolosaldean egonik, Tolosako bidea ematen diegu. Horretarako, larunbata erabiltzen dugu. Mendi inguruan gaudenok, mendira ere bidaltzen ditugu bezeroak. Asteburuaz gain, egun gehia-

go izanez gero, Donostia eta Bilbora joaten dira.

## Zein erronka ditu Nekots-ek datozen urteetan?

Gure artean elkarlanerako gune bat sortzea, eta gune hori, Tolomendi eta Tolosaldea Tour-era zabaltzea, ideiak sortu eta landu ditzagun. Iaz egin zen spa eskaintza errepikatzeko asmoa dago aurten. Ea beste horrelako eskaintzaren bat aurrera ateratzeko modua ere izaten dugun, eta era honetan, gehiago ezagutzera ematen garen, soilik horrela erakarriko baitugu jendea. ■

www.citroen.es

CITROËN C3  
HDI  
10.300E\*\*TIK

GAMA C3  
9.100E\*\*TIK

CITROËN C4  
HDI  
12.700E\*\*TIK

GAMA C4  
11.800E\*\*TIK

CITROËN TOTAL nahiago du +ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK <sup>1)</sup> +ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK <sup>2)</sup>

Kontsumo mixtoa (L/100 Km.) / Jaulkipena CO2 (g./Km.): C3: 4,3-7,2/113-172 C4: 4,4-6,9/117-175

Gomendatutako salneurria (B.E.Z.a, matrikulaizo zerga, gasarioa eta eskaintza bame) Eskaintza mesteazkin. Hilabete bukaera bitarte baliagarria; autozaintza eta stock-ean dauden autozaintza, Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrentzat, operazioa partia hartzen duten orlako lokalean. C3 HDI 111 FURU, C4 HDI 90 LX Coupe (AMM). <sup>1)</sup> Besezina: C3 111 FURU, C4 14 16V 90 cv Coupe. Industriako argizkile: C3 Exclusive, C4 Exclusive Plus. <sup>2)</sup> Arriko ordura aseguruaren irizpiderik (150€ 600€ bitartean), lehenengo urtean bame Compagnie Direct Seguros-ekin eta Aon GI y Carvajal S.A.U. Aseguru aldiakuntza bitartekari izanik, PSA Financo eskeintza 28 urte poroko bezero partikularrentzat, C4 bal finantziazten dutenentzat eta adin mugarik gabe C3 bal finantziazten duten bezeroentzat, 5000€ kapital minimoa (Plan Vive-tik kanpo). Banque PSA Financo eskaintza luzatzen die bezero partikularrei: hilabete bukaerarekin, CO2 jaulkipenak 140g/km arte, Plan Vive bame: Finantziazten ahalentzen 10.000€tik %4, Ezistio jaurtizkatu subentzionalatuta Plan Vive-ren bitzez, 10 urte baino zeharago den auto bal ematez gero. Irizpisen aurteko eredu beza erabilita, 10.000 €ko kapitala 50 hilabetean %6,65eko TINa eta %9,00eko TAEa, RBE: 596/09

CREATIVE TECHNOLOGIE

IROVI, S.A. KONTZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIAL GUNEA Z/G. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

# Dislexia

## ikusmena eta ikasteko ahalmena

**Teresa Olabarria optometriska eta Mertxe Arregui logopedarekin solasean**

*Teresa Olabarria optometriska, eta Mertxe Arregui, logopeda eta pedagogoa, lengoia eta ikusmenaren alorrean lan egiteko espezializatu diren bi profesional dira. Bakoitzak bere kontsultatik (Olabarria, San Francisco 11. Arregui, Gipuzkoa Enparantza 1.) idazketan edo irakurketan arazoak dituzten pertsonekin egiten dute lan. Elkarren osagarritzat jo dezazkegu bion eginkizunak.*

### Nola ezagutu zineten?

**Teresa Olabarria:** Paziente berberak genituen. Ezagutu eta berehala ohartu ginen lan egiteko era antzekoa genuela. Gainera, taldean lan eginda, emaitzak askoz ere hobekak zirela konturatu ginen.

### Nola egiten duzue taldeko lan hori?

**Mertxe Arregui:** Norberak bere kontsultan egiten du lan. Baina maiz bilerak egiten ditugu kasu bakoitza elkarrekin aztertzeko. Guregana etortzen diren haurrak aztertu ondoren, lankidearen laguntza behar duela ikusten badugu, harremanetan jartzen gara.

### Zeintzuk izaten dira kontsultan ikusten dituzuen arazorik ohikoena?

**M.A.:** Logopediaren arloan, era askotako arazoak daude: arazo artikulatorioak, deglutatorioak, marantak, memoria arazoak, lengoaiaren galerak... Baina gehien ikusten diren kasuak, irakurtzen eta idazten ikasteko prozesuan atzerapenak dituzten haurrak eta dislexia dutenak dira.

**T.O.:** Optometriaren ikuspegitik arazo ohikoena, anbiopia (begi alferra), estrabismoa eta irakurketa zein idazketarekin zerikusia duten konbergentzia okularrak izaten dira.

### Nola egiten duzue lan kasu hauen aurrean?

**M.A.:** Diagnostikoa jakiteko

egiten diren froga ugarietan, entzumenaren eta ikusmenaren kanaletan, informazioa hartu edo igortzeko garaian zailtasunik badagoen baloratzen dut. Gorputzaren jarreraren, testura asko hurbiltzen ote den, testua jarraitzeko burua mugitzen ote duen, esaldiak jarraitzeko hatza erabiltzen ote duen... begiratzten dut. Kasu hauetan gurasoekin hitz egiten dut, eta Teresarekin azterketa osatuago bat egiteko aukera azaltzen diet.

**T.O.:** Nire kontsultara etortzen diren pazienteen kasuan, ikusmen azterketa orokorra egin ondoren, ikusmenaren perfekzioa, entzumenarena, motoreena eta memoriarena neurtzeko frogak egiten dizkiet. Hizkien edo zenbakien inbertsioa ikusten badut, eta lengoaiari dagokionean ere arazoren bat aurkituz gero, pazienteak Teresarekin baloratzea gomendatzen diet gurasoei.

### Zer zerikusi dute dislexiak eta ikusmenak?

**M.A.:** Dislexia, koefiziente intelektual normala duten haurrek, eta osasun fisiko zein psikologiko betean dauden haurrek, irakurtzen eta idazten ikasteko arazoak eta zailtasunak dituztenean ematen da. 8 eta 9 urte artean antzemanetan da oro har.

**T.O.:** Azken ikerketek frogatzen dutenez, kasu askotan irakurtzen ikasteko zailtasunek ikusmen arazoekin zerikusia dute. Hasteko, hiru paziente



mota bereiztu beharko genituzke: irakurketa ikasketan atzerapena dutenak, baina ikusmen arazorik gabe; irakurtzen ikasteko arazoez gain, ikusmenaren alterazioak dituztenak; eta azkenik, ikusmen arazoak dituztenak, baina irakurtzen ikasteko prozesuan eragin gabe. Ikusmena, irakurtzen, idazten edo ikusten duguna perzibitzeko, identifikatzeko, interpretatzeko eta ulertzeko ahalmena da. Ez da jaiotzetik dugun gaitasuna, haurtzaroen garatu egiten da. Gaitasun hauek hobetzeko entrenatu egin daitezke. Irakurtzen ikasteko, garrantzitsuak dira baita ere, mugikortasun okularra, akomodazioa, konbergentzia okularra, eta memoria bisual eta auditiboa. Terapia bisualarekin, gaitasun hauek entrenatu egin daitezke, errendimendu handiagoa lortzeko. Logopediarekin, irakurketarekin zerikusia duten gainontzeko alor guztiak lantzen dira.

### Zuen elkarlanak zer nolako emaitzak ari da ematen?

**T.O.:** Kasu guztietan, emaitzak oso positiboak izan dira. Gurasoak babestuagoak sentitzen dira, eta kolaborazio interpersonala eskertzen dute.

### Zer gomendio duzue gurasoentzat?

**M.A.:** Euren seme-alabei irakurtzea kosta egiten zaiela ikusten badute, esaldi edo letrak saltatzen badituzte, hizkiak nahastzen dituztela konturatzen badira, edo irakurtzeko lerroa hartzetaz jarraitzea beharrezkoa dutela konturatzen badira, kontsulta eska dezatela. Garrantzitsuena azterketa osatu bat egitea da. **Diagnostiko azkar batek, haurrak ikasketetan sentitu dezakeen frustrazioa sahiestuko du.** Gure lana da gurasoak lasaitu eta orientatzea. Lanean garaiz hasiz gero, lehenago iritsiko dira hobekuntzak. ■



# Jon Magic, gazte bat magiaren mundu liluragarrian

12 URTEREKIN HAINBAT MAGIA IKUSKIZUN ESKAINI DITU JON MAGIC MAGOAK.

Leire Zubeldia

**M**ago on baten gisan, bere trikimailuak ondo ezkututzen ditu Jon Magic-ek. Bere logelan, magia egiteko objektu eta trastez beterik duen armairua ere ez digu erakutsi. Sekreturik ez digu kontatu, baina magia joko batzuk egin dizkigu. Sosegu handiz, urduritasunak ez dio eskuetan dardarizorik sortu. Izan ere, Jon Magic, gaztea izan arren, (Euskal Herriko magorik gazteena izango da) ohituta dago jendaurrean magia egiten. Herrikoen urtebetetze

**Etxean, eskolan, eta kalean, Jon Esandi da bere izena, baina kapa eta kapela janzten dituenean, Jon Magic bezala ezagutzen dute denek. 12 urte besterik ez ditu irurar gazte honek, eta dagoeneko makina bat pertsona liluraturik utzi ditu bere magiarekin. Agerrarazi eta desagerrazteko jokoan maisua dela erakutsi du, orain artean egin dituen ikuskizunetan. Berak zabaldu dizkio Galtzaundiri, hain harrigarria eta aldi berean, hain urruna zaigun magiaren mundurako atea.**

festetan, Ikastolako jaialdietan... Iaz, Iruran egin zen Kilometroak festan, Txan magoarekin saio bat egiteko aukera izan zuen.

Etxeok ere eskatzen diote, trikimailuren bat edo beste egiteko. Eta Jonek noski, eskatutakoa egin die. Zer gutxiago,

familiakoak asko laguntzen baitiote bere zaletasunean aurrera egin dezan. Nerea, arreba txikiak esaterako, bere ikuskizunetan laguntzen dio. Eta gurasoek, urte prezioa duten magia egiteko tresnak erosten dizkiete.

Orduak eta orduak igarotzen

ditu mago gazteak etxean magia jokoak entsaiatzen. Denbora libre erabiltzen du horretarako. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo maila ari da egiten Anoetako Ikastolan. Tronpeta ere jotzen du. Oraingoan, Ikastola, musika ikasketak eta magia primeran uztartzen ditu.

Hamabi urte hauetan asko ikasi du, baina magiaren munduan beste horrenbeste, edo gehiago geratzen zaio ikasteko. Raul Alegria magoak Santanderren zabalduko duen magia eskolan izena emateko asmoa dauka. Hala ere, argi du ez dela mago profesionala izango. Magia, zaletasun gisa ulertzen du. Ideiak

(hurrengo orrian jarraitzen du)

oso argi ditu Jon Magic-ek. Hamabi urteko mutiko batekin baino, pertsona heldu bati egingdako elkarrizketa dirudi ondorengo honek. Lerro hauen bitartez Irurako magoa, eta magiaren mundua ezagutzeko aukera izango duzue. Eta nahiago baduzue, gauza bera egin dezakezue, [www.palimpalem.com/6/jonmagic](http://www.palimpalem.com/6/jonmagic) web gunean.

### Nola gerturatu zinen magiaren mundura?

Ba oso txikitari hasi nintzen. Ez dakit zergatik, magia asko gustatzen zitzaidan, eta jokoak erosi eta nire kaxa ikasten ibili nintzen denbora batean. Gero, magia kanpamendu batean ere egon nintzen mago batekin.

### Zer egiten zenuten kanpamendu horretan?

Hamar urte nituela joan nintzen lehenengo aldiz. Bilbon zen kanpamentua, eta Oliver izeneko mago

batek gidatzen zuen. Aste betez egon ginen berarekin magia nola egin ikasten. Iaz berriro joan nintzen kanpamendu honetara. Mago berdinarekin egon nintzen. Magia berri gehiago ikasteko aukera izan nuen.

### Nola konturatu zinen mago izan nahi zenuela?

Ba telebistan magoak ikusten nituen. Magia nola egiten zuten gustatu egin zitzaidan, eta neroni hasi nintzen saltsan.

### Mago izateko mago jai behar da, hala ikasi egiten da?

Nik uste dut ikasi egiten dela. Ez duzu zertan jaiotzetik abilezia hori eduki beharrik. Hemen, Euskal Herrian esaterako, mago asko daude adinean aurrera doazela magia egiten hasi direnak. Txan magoa adibidez, duela bost urte hasi zen magia egiten.

Gero, oso gauza ezberdina da magia gustatzea eta magia egitea. Badaude gauza batzuk magian, oso zailak direnak. Lan handia egin behar da horiek ondo ateratzea nahi baduzu.

### Mago asko al daude Euskal Herrian?

Gutxi dira, baina batzuk badaude. Lehen aipatu dut Oliver, Bilboko magoa. Gero, denok ezagutzen dugu Txan Magoa. Berarekin ikuskizun bat egiteko

aukera izan nuen. Gehiago ere badaude, baina ez dira batere ezagunak. Neronek ere ez ditut mago batzuk ezagutzen.

### Magia egiteko garrantzitsua izango da ensaiatzea ezta?

Bai, gauzak ondo ateratzeko funtsezkoa da praktikatzea. Denbora librean daukadanean ensaiatzen egoten naiz etxean. Ia egunero hartzen dut ensaiatzeko tartea.

### Zer nolako magia egiten duzu?

Gauza handiekin egiten dut magia. Estenatoki gainean magia egin eta publikoan daudenek ikusteko moduko objektuak gustatzen zaizkit. "Grandes ilusiones" deitzen zaio horri.

### Gaztetxoia zara, baina dagoeneko ikuskizun batzuk egin dituzu...

Bai. Irungo ospitalean egin nuen magia lehenengo aldiz. Hango langileen seme-alabentzat aritu nintzen. Urtero, gabonetan festa bat egiten dute, eta azkeneko bi urtetan deitu didate. Gero, Kilometroak Iruran egin zenean, Txan magoarekin batera eskaini nuen ikuskizuna. Kilometroak jaiaren antolakuntzan zeudenek galdetu zidaten ea Txan magoarekin ikuskizun bat egitea gustatuko litzidakeen. Nik noski, baietz erantzun nien. Txan magoa ere

*"Gauza handiekin egiten dut magia. Estenatoki gainean magia egin eta publikoan daudenek ikusteko moduko objektuak gustatzen zaizkit."*

prest agertu zen eta horrela aritu ginen biok batera. Nik hamar minutuko saioa egin nuen, eta gero, berak bere ikuskizunarekin jarraitu zuen. Azkenik, duela gutxi, Inauterietan Ikastolak egindako jaialdian egin nuen magia azkenekoz. Aipatutako ez gain, herriko gaztetxoan urtebetetzetako festetan ere egin ditut saioak.

### Etxeok eta lagunak ez dizute eskatzen beraiantzat magia egiteko?

Bai. Lagunak beti aritzen zaizkit, "egin ezazu truko hau!" edo "erakutsi ieza dazu beste hau egi-





ten!'. Eta familiakoen aurrean ere egiten dut magia. Ainhoa Arteta esaterako, gure lehengusua da, eta bere etxean egin izan dut magia.

#### Umeentzat ez ezik, helduentzat ere egiten duzu magia, beraz?

Bai, baina gehiago aritzen naiz txikien aurrean. Haurrei helduei baino gehiago gustatzen zaie magia. Helduak, trikimailua non dagoen adi-adi egoten dira, eta ez dakite magia gozatzeko. Haurrek sinetsi egiten dute, eta horregatik, ondo pasatzen dute.

#### Baduzu mago eredu bat?

Nire eredu Oliver da. Berak erakusten dit magia. Bere trikimailu batzuk egiten ditut nire saioetan.

#### Nola ikasten da magia?

Oliverrek dituen magiak egiten erakusten zidan, eta gero, asko, norbere kabuz, arituz, ikasten da. Nik, internetetik, magia dendatan erosten ikasi dut. Liburuetatik ere asko ikasten da.

#### Zenbat denbora eskaintzen diozu trikimailu bati?

Ondo ondo ateratzea nahi baduzu, hilabete batez edo aritu behar duzu entsaiatzen. Egia da, trikimailu guztiak ezberdinak direla, eta bakoitzak bere zailtasun gradua du. Zailtasunaren arabera, denbora gehiago edo gutxiago behar izaten dut.

#### Zure ikuskizunetan egiten dituzun trikimailuen artean, zein da egiteko zailena?

Badaukat trikimailu bat, lorekin egiten dena. Trukoak manipulazioan datza. Denbora asko

egon nintzen entsaiatzen, baina ez zitzaidan ateratzen. Alde batera utzi nuen azkenean. Handik denbora batera berriro hartu nuen. Pila bat entsaiatu nuen, eta azkenean, atera egin zitzaidan!

#### Ikusleei gehien gustatzen zaizen trikimailua zein da?

Umeei, karameloak agerraraztea. Hori da gehien gustatzen zaiena.

#### Trikimailuak etxean bakarrik zaudela, edo jendearekin zaudela egitea, ez da berdina izango...

Ez noski. Jendearekin askoz ere gehiago kostatzen zaizu. Gainera, magia egiteaz gain, estenatokiak hitz egin behar da. Hasi-eran asko kostatu zitzaidan, nahiko lotsatia bainaz. Alde horretatik, asko aurreratu dudala uste dut.

#### Zer behar da mago izateko?

Hasteko abilezia. Garrantzitsua da hori. Bestetik, asko praktikatu behar da. Hitz egiten ere jakin behar du magoak, komunikatzailerik ona izan behar du. Eta askotan, antzerkia egiten ere bai.

#### Euskal Herrian ba al dago magiaraiko tradizioirik?

Ezet esango nuke. Atzerrian, kafetegia eta taberneetan egoten dira magia ikuskizunak. Hemen inoiz ez zait horrelako bat ikustea egokitu. Duela gutxi esaterako, Future Scope-en izan ginen, eta magia saio bat ikusteko aukera izan genuen. Mago frantses batek eskaini zuen ikuskizuna, oso ona iruditu zitzaidan. Santanderren bada beste mago bat. Raul Alegria. Ainhoa Arteta egiten ari den opera batean parte hartzen du, eta nik, Ainhoa gertuko



dudanez, entsaiotara joan, eta berarekin egoteko aukera izan dut.

Irailean, Gasteizen aste osoko magia jaialdi bat egiten da. Mago asko elkartzen dira bertan. Magoak egon badaude Euskal Herrian, baina ez ditugu ezagutzen. Tradizio hori falta da, magiaren zabalpena.

#### Magia egiteko objektuak, eskuratze-ko ere Euskal Herritik atera behar al duzu?

Internetez erosten ditut gauzak. Baina bai, Euskal Herrian ez dago denda askorik. Dagoen bakarra Bilbon dago, baina ez da ona. Magia denda onenak Bartzelonan daude. Magia ikasi, egin eta erosi nahi duenak Euskal Herritik atera behar du.

#### Hemendik aurrera nola jarraitu nahi-ko zenuke?

Nire kabuz gauza gehiago ikasten joan nahi nuke. Gero, Oliver magoarekin dudak harremantzen eutsi nahi nioke, beragandik

ere asko baitaukat ikasteko. Bera oso mago ona da.

Gero, Raul Alegria magoak, magia eskola bat ireki behar du Santanderren, eta horra joan nahiko nuke. Hemen inguruko lehenengo magia eskola izango litzateke. Madrilen badago beste eskola bat, mago profesional izan nahi duten guztiak horra joaten dira.

#### Mago profesional izatera iristeko ametsa al duzu?

Hitz potoloak dira horiek. Nik uste, handitan ez naizela mago profesionala izango. Askok gustatzen zait mundu hau, baina magia, zaletasun bezala edukiko dut beti. Magiaz bizitzea oso zaila da.

Nire asmoa, hurrengo urteetan ikasten jarraitu eta ikuskizunak eskaintzea da. Bestalde, gustatuko litzaidake, jendeak magia mundu hau gehiago ezagutuko balu. Magia egitea oso polita da, eta nik animatu egin nahi dut jendea. ■

## J. San Sebastian

MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

## ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

## Joseba

Iturgintza

600 561 782

Iturgintza • Gasa • Berokuntza



**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:  
Granitoan marmolean eta  
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNIETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

**TOLOSA >>>** TOLOSAKO HIRU IKASTETXEETAKO IKASLEENTZAT BERTSO PAPER LEHIAKETA ANTOLATU DUTE

# Iurre elkarteak, gazteei bertsolearen aukera eskainiz

*Samaniego, Hirukide eta Laskorain ikastetxeetako LHko 4. 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta, Iurre Elkarteak Bertso Paper Lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa hau, Tolosako elkarteak bertsolearen landu eta zabaltzeko egiten ari den bidean beste pauso bat da. Helburua, gazteei beste aukera bat eskaintzea da, bertsolearen aukera.*

Leire Zubeldia

Iurre elkarteak 1997. urtean zabaldu zuten Iurre auzoko biztanleek. Egun, 80 bazkide ditu. Horietako bat da Alex Perurena. Jaiotzez Ikaztegiarra da, baina egun, Tolosako Iurre auzoa du bizileku. Berak azaldu du, nola hurbildu zen elkarteak bertso mundura: “Elkartean ez zen ezer antolatzen. Kezka hori sortu zitzaigun zuzendaritzan ginen lagunei. Orduan, bertso afari bat antolatzea bururatu zitzaigun”, kontatu du. 2007ko udazkenean Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña gonbidatu zituzten. Arrakasta izugarria izan zen. “Bi aste-  
ren buruan bete zen zerrenda, eta jendea kanpoan geratu zen”. Lehenengo ekintza hark elkartearen sortu zuten ilusioa ikusita, bertso afariekin jarraitzea erabaki zuten. 2008an bertsolearen berdinekin antolatu zuten bigarren afaria. “Inor kanpoan gera ez zedin, bazkide bakoitzak ekar zezakeen jende kopurua mugatu genuen. Hala ere, egun batek bestera bete zen dena”.

Iurre elkarteak, zerbait antolatzea eragiten zuen ilusioa eta satisfakzioa ezagutu zuten. “Bazkide guztiak parte hartu nahi izaten dute horrelako ekintzetan, denak agertzen dira laguntzeko prest. Horrela erraza da gauzak antolatzea”. Hurrengo bertso afariarako egu-

urteaz geroztik Iurre Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak hartueman estua izan dute. “Eurek guri lagundu, eta guk trukean gure elkarteak eskaini genuen, hitzaldiak antolatu, edo bertsolearen gazteen lehenengo plaza moduan erabiltzeko”.

aukera”. Hiru ikastetxeetako LHko 4. 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko dute parte. Lau koplak edo bi bertso egin beharko dituzte ikasgelan bertan. Epaimahaia Bertsozale elkarteak berak osatuko du. Irabazleentzat berriz, sari mundialak prestatu dituzte



Alex Perurena izan da Iurre Elkartearen bertsolearen antolatzailea.

na jarrita dute. Apirilaren 4an, Anjel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu eta Bixente Gorostidi arituko dira, Txolarre Irratiarekin elkarlanean antolatutako bertso afarian.

## BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN

Bertso afariak antolatzen hasi zirenean, Alex eta bere lagunek Bertsozale Elkartera jo zuten laguntza eske. “Geure asmoa azaldu genien, eta euren laguntza guztia eskaini ziguten”, dio Perurenak. 2007.

## BERTSO PAPER LEHIAKETA

Elkarteko azken batzarrean, bertsolearen lantzen jarraitzea erabaki zuten. “Bertso afariak antolatzea ondo dago, baina elkartetik kanpora ere zerbait antolatu nahi genuen”. Bazkideen lan egiteko gogoia eta Bertsozale Elkartearen borondatea probestuz, Tolosako ikastetxeen arteko bertso paper lehiaketa antolatzea erabaki zuten. “Gazteek beste aukera bat izan dezaten nahi dugu, bertsolearen

Aralar Kirolak dendak eskainita. Irabazleak, 150 euroko balea eskuratuko du eta bere ikaskide guztientzako merienda mundiala. “Bertsolearen ikasgai bat baino gehiago izatea nahi dugu. Horregatik, bertsoaren aitzakian ondo pasa dezaten, merienda hau eskainiko dugu”. Bigarren, hirugarren eta laugarren saridunek oroigarriak eta erosketa baleak irabaziko dituzte. Aipamen bereziak ere egongo dira. Sari banatze ekitaldia eguna laister emango dute jakitera. ■

# Galtzaundiko kultur ekitaldiak

## Anima hadi Martxaundiren V. aldira!

Galtzaundi Euskara Taldeko kultura sailak, bailarako musika talde eta bakarlari hasiberriei, deia luzatzen die Martxaundiren bosgarren edizioan proiektua aurkeztu eta bertan parte har dezaten.

Egitasmo honek, eskualdeko musikari gazteei musika munduan lehen urratsak emateko aukera eskaintzea du helburu. Aurreko lau edizioetan egitasmoak izan duen arrakasta ikusirik, 4 urteko maiztasunari jarraituz errepikatuko dugu aurten. Deabruak teilatuetan, Marruma, Jone... bezalako taldeek Martxaundin egin zituzten lehenengo pausoak. CDaren grabaketa udaberriaren egingo da eta udazkenean izango da aurkezpena.

**Baldintzak:** euskaraz abestea eta kontratu diskografikorik ez izatea dira proiektuan parte hartzeko baldintza bakarrak.

**Izen ematea:** Galtzaundi Euskara Taldea (Nafarroa etorbidea, 6 behea, Tolosa).  
Telefonoz 943 655004.

Emailaz: [kultura@galtzaundi.com](mailto:kultura@galtzaundi.com)

**Epea:** apirilaren 20



Apirilak 2  
Film Laburren  
zirkuitua  
TOLOSA  
20:00etan  
Kultur etxean  
Zinema euskaraz



Apirilak 30  
Idoia Sanchez  
BIDEGOIAN  
17:15etan  
liburutegian  
Ipuin Kontalaria

ALBIZTUR  
18:30etan  
liburutegian

Apirilak 23  
Idoia Sanchez  
Ipuin Kontalaria  
ABALTZISKETA  
17:15etan  
liburutegian

AMEZKETA  
18:30etan  
liburutegian



Apirila 23  
Kultur errota  
IBARRA  
20:00etan  
Zirkoa Zirkus  
taldearen  
"Ametsak.  
Zirkoa. Kabareta"  
helduentzako  
ikuskizuna



**galtzaundi**  
euskara taldea

**ERAKUSKETA**>>> MARTXOAREN 29RA ARTE ZABALIK EGONGO DA ARANBURU JAUREGIAN OTEIZA, BIZIRAKO

# Oteiza eta Tolosa lotzen dituen

*Gipuzkoako herri ezberdinetan egon ondoren, hilabete hasieran iritsi zen Tolosara "Oteiza, bizirako proiektua" erakusketa. Oteiza pertsona eta artista ezagutzeko aukera paregabea da. Ez hori bakarrik, Aranburu Jauregian jarritako erakusketan, Oteiza eta Tolosaren arteko harremanari tarte berezia eskaini zaio. Erakusketaz gain, beste hainbat ekintzaren bidez osatu da Oteiza Tolosan zikloa.*

Erredakzioa

**T**olosako Udalak antolatuta, Oteiza Fundazioaren eskutik martxoaren

6an zabaldu zen, *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa. Aranburu Jauregira iritsi aurretik, hainbat herri bisitatu dituen erakusketa bera da, baina gehigarri garrantzisu batekin: Oteiza eta Tolosakizan duten harremana erakusten duen atal berezi bat zabaldu dute. Honekin batera, hiru ikus-entzunezko ere Orioko artista hobeto ezagutzen lagunduko dio bisitariari.

## OTEIZA TOLOSAN

Aranburu Jauregiko erakusketa gelaren sarreran, Gorje Oteizak berak egiten du bere bizi-



Erakusketaren sarreran, Oteizak berak gonbidatzen zaitu barrura sartzera.

tzako proiektua ezagutzeko gonbita, horman jarri duten bere argazki handi baten bidez. Erakusketan, Oteizaren eskulturaren bilakaera azaltzen da, baita berak landu zituen beste adierazpen artistikoetan egindako ibilbidea ere. poesia eta arkitektura batik-bat. Modu egokian azaltzen da panelen bidez, Oteizaren espiritua. Baina zalantzarik gabe, erakusketan pisu handia du *Oteiza Tolosan* atal bereziak. Bertan, Tolosan dauden Oteizaren bi eskulturen pieza originalak daude, eta hauen isto-

ria azaltzen da.

Pieza horietako bat da Triangelun jarrita dagoen Atauts. Oteizak pieza egin eta Ricardo Ugarte bere lagun eta eskulturgilearen laguntzaz jarri zuen egun dagoen lekuan. Iñaki Epelde artistak ondo baino hobeto azaldu zuen aurreko bi larunbatetan egindako bisita gidatuetan obra honen esanahia: "Oteizarentzat Tolosa 8 formakoa da. Alde Zaharrak osatzen du 8-aren borobil bat, eta zabalgunek beste borobila. Atauts, 8-aren estugunean kokatu zuen. Etor-


kizunaren eta iraganaren erdian, ezdenboran alegia".

Oteizak Tolosan jarri zuen bigarren obra guztiz bestelakoa da. Hasteko, ez zen enkarguz izan, Oteizak berak hala nahi izan zuelako jarri zuen. Para movil, edo Txabi Etxabarrietari omenaldia eskulturaz ari gara. "Txabi Etxabarrieta Oteizaren laguna zen. Bentaundin hil zuten tiroz. Aurreko egunean, Andoainen Guardia Zibil bat hil zuten. Obra honen berezitasuna da, bi heriotzak elkartu nahi izan zutela. Nolabaiteko omenaldi inti-



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**Errrotatxo  
okindegia**

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038



PROIEKTUA ERAKUSKETA

# zilbor-hestea



Ataunts eta Par movil Oteizak Tolosarako egin zituen bi eskulturen pieza originalak ikusgai daude.

mo bat izan zen". Oraindik Oteizak jarri zuen tokian dago eskultura, nahiz eta larrek estalita daukaten. Eredu hau ez zen Udalen lurretan sartzen, baina Oteiza tematik jarri zen, eta berak eman nahi zion lekuan jarri zuen lana.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

Erakusketan, Oteiza ikusi eta entzun ere egin daiteke, oso gutxi ikusiak dauden hiru ikus-entzunezkoen bitartez. Horietako bat, Tolosako Ekinbide Etxeko Eskultura batzordeak

osatutako dokumentala da: *Herriarentzako eskulturak*. Bertan, Tolosako erakusketa iraukorra azaltzen da, tartean Oteizaren bi obrak. Bigarren lana *Fragmentos* izenekoa da. Jon Intxaustegik Oteizarekin batera egin zuen dokumentala da hau, artistaren pentsaera eta izaera ezagutzeko aparta. *Laberinto Oteiza* izeneko dokumentalean berriz, belaunaldi bat baino gehiagotako artistek Oteizari buruz euren irakurketa egingen dute.

## OTEIZA, ERAKUSKETA

## GELATIK KANPO

Erakusketa da Oteiza Tolosan zikloaren ardatza, baina Aranzburu Jauregitik kanpo ere Oteiza ezagutzeko parada egongo da. Martxoaren 27an esaterako, *Oteiza y el centro cultural alhóndiga. Proyecto estético para la ciudad de Bilbao* dokumentala dohainik ikusi ahal izango da Leidor aretoan arratsaldeko 19.30ean. Dokumental hau, Iskandar Rementeria, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Oteiza katedraren egileak egin du. Rementeriak, Gorje Oteiza-

ren hirirako pentsamendu estetikoan oinarritutako ikerketa baten ondorioa da. Gertakari bezala, burutu gabe geratu zen Bilboko Alhóndigaren proiektua hartu zuen egileak.

Martxoaren 28an berriz, Gko Galleryren eskutik, Ataunts arte lanaren inguruan performance bat egingo du artista gaztez osatutako talde batek. Belaunaldi gazteek, Oteizari egindako omenaldi moduko bat izatea nahi da. Desmuntatua apirilaren 11ean egingo dute. ■

**Zumardi**  
SEGURAS  
BILBAO

**Aholkularitza integrala**  
Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

<b>Donostia</b>	<b>Donostia</b>	<b>Tolosa</b>
San Martín, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak  
etab.

**JANTZIAK**  
**OSKI**  
oinetakeak  
Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

# Miguel Otegui, abiadura

FORMULA 2000 KATEGORIARA IGARO ZEN IAZ. ILUSIO

Leire Zubeldia

**M**iguel Otegui hamasei urteko gaztea bada ere, urteetako esperientzia pilatu du bolantearen aurrean. Zazpi urte zituela erosi zion aitak kart-a. “Nire etxean betidanik egon da auto-etarako zaletasuna. Oso jale txarra nintzen txikit. Aitak, gehiago jaten banuen kart-a erosiko zidala agindu zidan”. Agindu eta egin. Aitak kart-a ekarri zion. Bertan egin zituen bere lehenengo kilometroak. “Era honetan zaletu nintzen ni ere”. Geroztik Miguel ez da autotik jaitsi. Urte hauetan egin duen ibilbide oparoari esker, Formu-

**Formula autoen munduak gero eta jarraitzaile gehiago ditu, baita euskaldunon artean ere. Hala ere, oraindik urrun samar geratzen zaigun kirola izan daiteke, ez baitauekagu euskal ordezkariarik bertan. Miguel Otegui, Tolosan bizi den asteasuarra izan liteke ordezkari hori. 16 urte besterik ez ditu, eta dagoeneko Formula 2000 kategorian, nazioarteko onenen aurka lehiatzen ari da. Formula 1era iristearekin egiten du amets.**

la 2000 kategoriako nazioarteko mailan ari da lehiatzen.

## ZIZTU BIZIAN, AURRERA

Ziztu bizian, halaxe egin du aurrera abiaduraren munduan Miguelek. Olaberria eta hemen inguruko zirkuituetan entrenatu ondoren, “kart-etan aritu nintzen lehen hiru urteetan Euskal Herri mailan lehiatu nintzen. Horrela, 2006. urtera arte”. Urte honetan Katalunian egin zuen salto. 2007an egin zuen kart-etako azken denboraldia, baina azken urte honetan, nazioarteko mailan aritu zen, Espainia eta Europako

txapelketak zein mundialean lehiatuz. Hala ere, Oteguik egindako saltorik handiena, kart-etatik Formulara emandakoa izan da. 15 urte besterik ez zituen Formula auto bat lehenengo aldiz gidatu zuenean. “Iaz izan zen, Epsilon Euskadi taldearekin egin nuen aurrendenboraldia eta Valentziako iQuick taldearekin sinatu nuen denboraldi osoa egiteko”. Hori jada sari moduko bat izan zen Miguelentzat, baina auto barruan gogorra egin zitzaion. “Oso gogorra izan zen. Nire aurkariak baino askoz ere gazteagoa nintzen”.

## AURTENGO DENBORALDIA PRESTATZEN

Epsilon Euskadi taldearen autoarekin irtengo da aurten irteera maratik. Une honetan, aurrendenboraldia egiten ari da. Galtzaundik Frantzia harrapatu du pilotu gaztea. Bertan aurrendenboraldiko entrenamendu bat egiten ari zen. Frantziatik, Spa Franko Champs-era, Belgikara joango da. “Orain, mekanikari eta ingeniariaren taldea autoa bere puntuan jartzen ari da. Oso lan ona ari gara egiten, eta pixkanaka-pixkanaka, auto lehiakor bat lortzen ari gara”.



# bizian

HANDIZ ARI DA AURTENGO DENBORALDIA PRESTATZEN.

Apirilaren 23an hasiko da denboraldia. “Pilotu guztiek bezala, aurreko postuetan ibiltzeko borrokan sartuta egotea da nire helburua”, dio Otegui. Azaroan, denboraldia amaitzen denean ikusiko da helburua betetzen duen.

## HEGAZKINETIK AUTORA, AUTOTIK HEGAZKINERA

Hamasei urte besterik ez dituen arren, Miguel Otegui ohituta dago bakarrik bidaiatzen. Dagoeneko zenbatu ezinak dira, kanpora bidaiatzeko hartu dituen hegazkinak. Urteko egun asko, gehienak esan daiteke, etxetik kanpo ematen ditu. Pilotu gaztearen beste borroka, ikasketak eta kirola uztartzea da. Batxilergo teknologikoko ikaslea da. “Egia esan, ez da batere erraza lehiaketa eta eskola uztartzea. Batetik, egun asko ematen ditut kanpoan, eta bestetik, nahiko alferra naiz. Denda den, orain arte behintzat dena lehenengotan atera dut. Ea horrela jarraitzen dudan”. Alde horretatik, lagunaren inbidia ere bada Miguel. Baina, berak dioen moduan, dena ez da arrosa kolorekoa. Autora igo eta pedalari zapaltzea baino askoz ere gogorragoa da abiaduraren mundua. Etxetik kanpo dagoenean, auto barruan egiten ditu entrenamenduak. Etxe inguruan dabilenean berriz, entrenamendu fisikoa egin behar izaten du. Izan ere, formula lasterketei aurre egiteko iraupena oso garrantzitsua da. “Formulako pilotua izate-

ko, lehenik eta behin kirola gustuko izan behar duzu, bestela jai daukazu. Gero, kirol honek eskatzen duen prestaketa guztia egiteko prest egon behar duzu. Kirol hau ez da autora igo eta kitto. Talde lana gauza guztien gainera dago”.

## FORMULA 1 ERA IRISTEA AMETS

GP2, F3, eta World serie 3.5 mailek bereizten dute Miguel Formula 1-etik. Azken maila honetan amaitu nahi luke Otegui kirol ibilbidea. “Hala ere ez naiz horrekin obsesionatzen. Nahiago dut aurtengo denboraldian kontzentratu, lan on bat egin eta egunean egunekoa bizitzea”. Gainera, Miguelen helburu bera duten pilotuek zailagoa dute orain euren ametsa betetzen. “Krisi ekonomikoarekin Formula 1-eko taldeak desagertzen ari dira. Lehen aukera gutxi bazeuden, honek gehiago murrizten ditu”. Tolosako pilotuarentzat, Formula 1-era iristea, “lan asko egin eta horren fruitu izan daitekeen amets bat da”. Borroka horretan gainera, dena ez dago pilotuaren esku. Zoritxarrez, diruaren hotsa ezinbestekoa da Formularen. Auto lehiakor bat prestatu eta alde batera zein bestera bidaiatzeak aurrekontu handia eskatzen du. “Sponsor-ak lortzea ezinbestekoa da”.

Miguel Otegui gazteak ordea lasterketan jarraituko du, helmuga zeharkatu arte. ■



# Martxoaren 20tik apirilaren 3ra arteko hitzak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

»» Martxoaren 21era arte: SIDA/IHE-SA. 8 artista 8 hausnarketa izeneko erakusketa, Medicus Mundiren eskutik.



»» Martxoaren 29ra arte: Oteiza Tolosan. "Oteiza, bizirako proiektua" erakusketa, + Oteiza Tolosan atal berezia + ikus-entzunezkoak.

## IKUSKIZUNAK

### LEIDOR

»» Martxoak 27. Oteiza y el centro cultural alhóndiga. Proyecto estético para la ciudad de Bilbao dokumentala ikusgai, 19:30ean. Doan.

## IKUSKIZUNAK

### ALDE ZAHARRA

»» Martxoak 28: Tolosa kantari ekime-neko kideak kantuan arituko dira goiz guztian zehar.

### TRIANGULO

»» Martxoak 28: Atauts eskulturaren artea artearen gainean performance-a Gko Galleryren eskutik, 11:00etatik 18:00etara.

## M U S I K A

### BONBERENEA

»» Martxoak 27: Positiva eta Lords of bukake taldeen emanaldiak 22:30ean hasita.

»» Martxoak 28: Unsain anaiak and konpany zuzenean 22:30etatik aurrera.



### BEOTIBAR PILOALEKUA

»» Martxoak 28: Abiba disko jaia.

## EUSKARAENEA

»» Martxoak 24 eta 25: Dar-dar produktzioak-en eskutik, Eta zer? antzez-lana ikastetxeetako ikasleentzat, eskola orduetan.

»» Martxoak 26: Artikoko ipuina filma gaztetxoentzat 09:45ean.

»» Martxoak 28: Tontokaletik abiatuta, eguerdiko 12:00etan Tolosa Kantari Alde Zaharreko kaleetan.



»» Martxoak 28: Bertso Jazza Leidorren 22:00etan.




»» Martxoak 30: Xabi Payaren hitzaldia, Aitzor Udal Euskaltegian, goizeko 10:00etan hasita.

»» Apirilak 2: 11:30ak aldera, Korrika iritsiko da Tolosara. 12:30etan, hamaiketako Trianguloan.

»» Apirilak 3: Benito Lertxundiren kontzertua Leidorren, arratsaldeko 20:30ean.

»» Apirilak 4: Udaberri Dantzari Taldeak antolatuta, Dantzari Txiki eguna.



## TXOLARRE IRRATIA KABITIK PLAZARA

### IURRE ELKARTEA

»» Apirilak 4: Bertso afaria 21:00etan. Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu eta Bixente Gorostidi. Txartelak salgai, Iurre Elkartearen, Rakun eta Galtzaundin.

## KORRIKA 16

### ESKUALDEAN TOLOSA

»» Martxoak 25, asteazkena, 19:30ean: Bidaia intimoak dokumentala, Kultur Etxean.

»» Apirilaren 2an, Korrika herritik pasa ostean 12:30ean, hamaiketako Trianguloan (euria egiten badu, Zerkausion). Horrez gain, Korrikako materiala salgai jarriko dugu Euskaraenearen egitarauaren barruan, martxoaren 28an Leidorren izango den Bertso-jazz ekitaldian.

### IBARRA

»» Martxoaren 27an, ostirala, 17:00-19:00 bitartean, arropa postua Ibarra-ko San Bartolome plazan.

»» Martxoaren 31a, asteartea, 19:30ean: Bidaia intimoak dokumentala, Kultur Etxean.

# tzorduak

## ANOETA

### >>> Martxoak 28,

- 11:00etan, Bidaia intimoak dokumentala, Udaletxeko Pleno aretoan.
- 12:30ean arropa postua, Herriko Plazan.
- 14:30ean Bazkari Herrikoa.
- 19:00ean Trikipotea
- 23:00etan, kontzertuak Gaztetxean.

## ALEGIA

>>> **Martxoak 26, osteguna:** Bidaia intimoak dokumentala, 19:00etan. Kultur-etxean.

>>> **Martxoak 29, igandea:** Hamaiketako eta arropa postua Herriko Plazan, 12:00etan.

## ALTZO

>>> **Apirilak 2, Korrika Txikia** egingo da eskolan eta ostean merienda eskainiko zaie haurrei.

## IKAZTEGIETA

>>> **Martxoak 27, ostirala,** Bidaia intimoak dokumentala, Herri-ostatuan, 20:00tan.

>>> **Martxoak 27, ostirala,** Afari Herrikoa. Herri ostatuan, DVD emanaldia-oren ostean.

>>> **Martxoak 28, larunbata,** Mus txapelketa, Herri-ostatuan: 17:00etan.

>>> **Apirilaren 2an, osteguna,** Korrika igaro ostean hamaiketako eskolako haurrentzat.

## IRURA

>>> **Apirilak 2, osteguna:** Korrika Irura iritsi aurretik Herriko Plazan hamaiketako emango zaie herriko haurrei.

## AMEZKETA

>>> **Martxoak 27, ostirala:** 19:30ean, Film Laburren Zirkuitua. Polibalentea gela.

# Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

## Ikastaroak

Galdaragintzako planoen inter-pretazioa eta egiturak	60 ordu	2009/03/23
Zaintzailea zaintzeko tailerra	40 ordu	2009/03/24
Automatizazio industriala (Mekanikoentzako elektrizitatea)	35 ordu	2009/04/27
CAD 2D (Autocad hastapena)	40 ordu	2009/04/27
CAD 2D (Autocad aurreratua)	30 ordu	2009/04/27
Lan Arriskuen Prebentzioa	40 ordu	2009/04/27

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17  
20400 Tolosa  
Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: info@ikastn.com

<http://www.ikastn.com>

## Guardiako farmaziak

### MARTXOA

#### Ostirala, 20

Tolosa, M<sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7)  
Tolosa

#### Larunbata, 21

Extebeste Jesus M<sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa

#### Igandea, 22

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

#### Astelehena, 23

Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

#### Asteartea, 24

Bronte Cecilia, (korreo 20) Tolosa

#### Asteazkena, 25

Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

#### Osteguna, 26

Olarreaga M (Martin Jose Iraola)  
Tolosa

#### Ostirala, 27

Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa

#### Larunbata, 28

Iburrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra

#### Igandea, 29

Tolosa, M<sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7)  
Tolosa

#### Astelehena, 30

Bronte Cecilia, (korreo 20) Tolosa

#### Asteartea, 31

Extebeste Jesus M<sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa

#### Asteazkena, 1

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

#### Osteguna, 2

Ugarte, M<sup>a</sup>Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra

## Telefono interesgarriak

**Alegia-Amezketak-Albaitzura-Albaitzura**  
Osasun zentroa . . . . . 943 653 212

#### Altzo

Medikua . . . . . 943 654 737

#### Anoeta-Alkiza-Hernalde

Medikua . . . . . 943 652 339

#### Baliarrain

Medikua . . . . . 943 889 003 (asteazk.)

#### Berastegi-Elduain

Medikua . . . . . 943 683 361

#### Bidegoian

Medikua . . . . . 943 681 134

#### Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gatzelu-Leaburu

Osasun etxea . . . . . 943 672 411

#### Ikaztegieta

Medikua . . . . . 943 653 329

#### Irura

Osasun zentroa . . . . . 943 690 720

#### Tolosa

Anbulatorioa, larrialdiak . . . . . 943 650 931

San Esteban, hitzordua . . . . . 943 006 800

Gernikako Arbola, hitzordua . . . . . 943 006 900

Amarozko dispensarioa . . . . . 943 672 637

Asunzion klinika . . . . . 943 675 799

(larrialdiak) . . . . . 943 675 390

San Kosme San Damian

geriatrikoa . . . . . 943 672 932

Udaltzaingoa . . . . . 943 675 858

Ur eta Argia (Tolargi) . . . . . 943 650 016

Ur zerbitzuak (aberiak) . . . . . 639 352 156

lurreamendi egoitza . . . . . 943 670 325

Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . . 112

DYA . . . . . 943 672 536

Gurutze Gorria . . . . . 943 674 888

. . . . . 943 651 425

Ertzantza . . . . . 943 673 022

Tolosa Gasa . . . . . 943 675 320

#### Lizartza

Medikua . . . . . 943 682 077

#### Orendain

Medikua . . . . . 943 655 595

#### Orexa

Medikua . . . . . 943 682 228

**Vicente**  
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@jet.es

T X O K O L A T E G I A

**Meriendak, txurroak**

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

K A F E T E G I A

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagire

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA



## Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

### LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

### ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

### SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipen 18.000 euro. **629 52 51 50**.
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669**.
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km)** salgai 617 863 669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- **kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa** salgai. 617 863 669

# HOROSKOPOA

MARTXOAREN 20TIK APIRILAREN 3RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Aspaldiko partez berarekin egoteko denbora izango duzu. Elkarrekin leku berriak ezagutzeko une egokia izan daiteke. Zuen harremana aberasten duen praktika da hau.



## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Ez da unerik onena buruan duzun asmo hori gauzatzeko. Zalantzati zabilta. Hobe da zeure buruarekin konfidantza izatera iristen zarenean ekitea.



## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Osasun betean egon izan zara beti, baina hastear den udaberriak burukomina eragingo dizkizu. Alergiak ez dira jaiotzetik izaten! Ezusteko on bat izango duzu lanean.



## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Harri berean hiru, lau, bost... aldiz estropozu egiteko gai zaren gizaki bakarra zara. Betiko hanka sartzea egin nahi ez baduzu, pentsatu hitz egin baino lehen.



## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Bada garaia tinko jarri eta nahi duzun hori eskatzeko. Ausardia erakutsi behar duzu nagusien aurrean. Zure jarrera positiboki baloratuko dute. Asteburuetan deskonektatu.



## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Inoi ez zarete horrenbeste denboran elkarrengandik urrun egon. Distantziak on egingo dizu zuri, eta baita zuen erlazioari ere. Itzuleran beste erabaki bat hartu beharko duzu.



## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Lanik gabe ez da saririk izaten. Utzi alferkeriak alde batera eta jarri gogoa saiakera horretan. Zortea zure alde izango duzu. Etxekoren bat zure lagun-tzaren beharrez.



## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Ez izan kaka eta busti zaitez! Galdeozu zere pentsatzen duen, horrenbeste konfidantza baduzue. Bestalde, paper kontuak zuzentzea egokituko zaizu, isunen bat edo beste ordainduz gainera.



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Zuen arteko pasioa inoiz baino indartsuago izango da. Udaberria izango da agian. Bikoterik ez baduzu, abenturaren bat bizitzeko aukera asko izango dituzu.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Urak bere onera etorri daitezzen zeuk ere zerbait egin dezakezu. Harroki kalte egiten dizu zuri, baina berarentzat are mingarriago izaten da. Konponbidea barkamena eskatzea bezain sinplea da.



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Lagun artean egin ditzakezun tratuak garrantzitsuak izan daitezke zure lan egoerarako. Bestetik, diru sarrera garrantzitsuak izango duzu. Baliagarria izan daiteke buruan duzun inbertsioa egiteko.



## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Jende berria ezagutuko duzu hilabete honetan. Faktore honek eta udaberriak eraginda, maitemintzeko aukera asko dituzu. Baina kontuz: begiratu urik bada goen salto egin aurretik!



Komikia: Joseba Aritzustegietxarte



# ATE IREKIAK

## GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRIKO KANPUSA - INGENIARITZA

MARTXOAK 28 Goizeko 11:00tan larunbete

2. Balxilongo ikaskentzala, gurasoentzala, elabar....

943 88 00 62 (Garazi) // bulegoa@goiemskola.org

Plaza emeserbatul



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea 7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa 943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com



M<sup>a</sup> Teresa de Olabarria Ruiz  
OPTOMETRISTA

### IKUSMEN TERAPIA

- Estrabismoak
- Anbliopiak (Begi alferra)
- Ikaste zailtasuna
- Garapeneko arazoak
- Garezur-entzefaliko traumatismoek eragindako arazoak


### AUDIOTRAINING

- Hiperaktibitatearen murrizpena
- Ansietatearen murrizpena
- Animoaren hobekuntza

San Francisco 11, 1º ezk. TOLOSA  
e-maila:teresaola@euskalnet.net  
HITZORDUA - 652 773 813



Mertxe Anregui  
Logopedo-Perlogogoa




- Fonetologi erlijioak
- Artikulazioaren desberdintasunak
- Logopodia
- Hainbat arazo fonetiko-akustiko eta fonologiko eragindako arazoak
- Hitzaketa
- Hitzaketa irakurketa
- Hitzaketa irakurketa
- Hitzaketa irakurketa

Logopodiaren irakurketa, irakurketa  
(Lehen Heziketa eta Heziketa)  
Oraindik ere irakurketa  
Web: www.martxeanregui.com  
Lehen Heziketa eta Heziketa

# Senda Bide

bielardenda

Dieta pertsonalizatuak  
Doako bisitak  
Dietista diplomatatuak



- Elikadura biologikoa
- kontsulta naturista
- Zeliakoentzako elikadura
- bibirako orduak hartzen ditugu



Atzeritako jaiarrietako Akta

San Francisco, 10 - TEL: 943 653 444 - Tolosa  
Korteko kalea, 3 - TEL: 943 672 140 - Tolosa

# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 - 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A - 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

